




Jose Ramon Garai,
Euskadiko Federazioko burua

Mundiala Iruñean jokatzera erabaki du Espainiako Federazioak

■ Euskadikoaren iritziz, «mendekua egin da: EAE eta Nafarroa zatitzeko beste maniobra bat da» •37



Sanroma esprinterra hil da Kataluniako Itzulian, istripuz

■ Profesionaletako lehen urtean zazpi garaipen zeramatzen, eta etorkizun oparoko txirrindularia zen •35

Euskararen kontrako erasoak

Udalek euskara hutsez funtzionatzea ilegala dela ebatzi du Espainiako Auzitegi Gorenak

UEMAk dio diskriminaziorik ez dagoela, herritarrek informazioa eskatzen duten hizkuntzan jasotzen dutelako

• 16

Ipar Euskal Herriko Udalen Biltzarra

Udal ordezkariak departamendua eskatu diote Parisko Gobernuari

Ekimena zapuzteko, prefetak gutun bat helarazi zuen Baionako biltzarrerara

■ IPAR EUSKAL HERRIKO Udalen Biltzarrek Lionel Jospin gobernuburuarekin biltzeko asmoa du euskal departamenduaren eskaera berriro egiteko. Atzo Baionan eginiko biltzarrean horixe erabaki zuten, batez ere Bouilhaguet prefetaren

gutunaren berri izan ostean. Prefetaren iritziz, departamenduaren alde «gaizki informatutako auzapez asko dago». Gutunak haserretu egin zituen bildutakoak; haien aburuz, udalen ekimena zapuzteko beste saio bat besterik ez da prefetarena.

Jospin gobernuburuari gutun bat igortzea erabaki zuten aho batez, eta, 1981ean Deferre Barne ministroarekin egin bezala, Jospini bilera eskatzea deliberratu. Nicole Pery ministroak zeharkako kritikak ere jaso zituen. •7

politika

■ PSNko herrialde batzordeak onartu du alderdi guztiekin biltzea •11

gizartea

■ Eurokarta

Euskararen ezagupenerako parlamentarioen taldea osatzeko konpromisoa hartu du Lamassourek •17

■ Araba euskaraz

Gaur festa handia izango da Lapuebla de Labarkan •21

europa

■ Kosovo egonkortzeko akordioa lortu du G-8ak Kolonian •25



Koka
Boliviako
armiarmasarean

Motorra
Euskal herriko
Harleyzaleak



Alavesek eutsi egin nahi dio

■ JOKA zezakeen final handiena izango du gaur jokoan Alavesek. Arabarrek Real hartuko dute Mendizorrotzan, eta, derbiek eman ohi duten bertasunaz gain, larritasuna ere nabarrituko dute jarraitzaileek. Lehen mailari eutsi edo promozioa jokatu dago airean, baina mailari eusteko, hala ere, Realari irabazteaz gain Vila-Real taldeak Extremaduran irabazi edo gutxienez berdindu egin beharko du. Argazkian, jokalariek arabarrak ariketa arinak egiten ageri dira, atzoko entrenamenduan.